

ARITZARI OLES-DEIA

OTEITZA'TAR GORKA'K

euskeratu bear bai-naute, zergatik deitzen didak ZERUKO ARGIA'tik? Onela alden-
tzen ikusten ba-nauk, aur nintzaneko nere izketa galdua jasotzerik, ezin onartu de-
zakedalako de k

etziokat inori barkatzen

zeruko argia nork euskeratzen dik?

ken esku ori, etzaidak lagundu

nere buruaren bengaizoa nauk, edo-ta nere erantzuna nere

itzak ire eskuetan ditukalako ta ire burua osotzat jotzen dekalako ezeren utsik ez
dekalako

ezer etzaik palta

ni palta nazue

eskupeko eskean makurtzen zaituzten puska au.

i osoa aiz eta orrela irauten dek

(-tzera

nik nere burua zutik eta mutu naiago diat, baiña ez edozein zugaitzen an-)

ire jabegaitza, ire ibaia, ire etxea, ire seme-alabak

piñu-gramatikak

latiñez zikintzen dituan bitartean

ni bakarrik zutitu ta zugaitz biurtzen nauk Zugaitz

bizitzeko

ta eztarria aizeak minbera dakidan

begiak ire zai

ez nauk makurtzen

ez nabillek argi-billa zeruan

kopeta makur

orain ikusten naukan bezela

onela zutik eta bizkarra emanda

gogora zak

burua gainbera

besoak atzera eroriak

txapela eskuetan

(iregandik etendako zugaitz txikia nauk

iregana itzulean)

itzal-dardara barreiatua zeran Aita ori,

arrizko alkitzarrean exeritako antziñateko itzal ori

Oi, Zugaitz, eskulotu bakarti

il-soiñekodun zeruraiñoko burnizuti gorri, argi izkutu,

ixuritako itxaropen konta-eziña

(Iregana itzulean

natorren orri etena nauk)

nork entzuten du, Aita, nork euskeratzen du Zugaitza?

txorien ixilla, bitartea,

nork euskeratzen du ituna? Zugaitza baiño lenago

nork euskeratzen du len izan zerana?

(Aita ori, nork euskeratzen du

bukatu gabeko itxoite au?

mendi garaienetatik

guziak jetxi ta joan diranean, nork euskeratzen du?

Zugaitz baiño len

(-tean

aritz artean, ballera artean, sugar artean, laiño ar-)

i emen, esaten didak (eta nork euskeratzen dik?): ni gizon niñukan